

## ZOKKETAREN OINARRIAK

### #DONOSTIA HITZETAN- A CITY WORD VISITING

#### **LEHENENGOA**

Lehiaketan parte hartzeko euskarazko hitz bat partekatu behar da argazki edo bideo baten bidez, #DonostiaHitzeta hashtagarekin, Facebook, Twitter edo Instagramen, edo 607187462 WhatsApp-era bidaliz.

#### **BIGARRENA**

Lehenengo puntuko baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileen artean zokketa egingo da irabazlea hautatzeko. Irabazlea ez bada Donostia Turismoarekin 72 orduetan harremanetan jartzen, zokketa berria egingo da.

#### **HIRUGARRENA**

Parte hartzeko epea apirilaren 2an hasiko da eta maiatzaren 17an amaituko da 23:59an. Zokketaren irabazlea maiatzaren 19tik aurrera argitaratuko da [www.sansebastianturismoa.eus](http://www.sansebastianturismoa.eus) webgunean eta Donostia Turismoko Facebookeko profilean.

#### **LAUGARRENA**

Saria:

- Narru jatetxean afaria
- Arbaso Hotelean gau bat premium logelan
- Dastaketa gosaria Narrun

Baldintzak:

- Erreserba (ostatu-gaua, afaria eta gosariarentzat) gutxienez 30 egun lehenago egin behar da eta Arbasoko logelak zein Narruko mahaiak libre egon behar dute.
- Esperientzia erreserbatzeko 843 931 400 zenbakira deitu beharra dago.
- Saria irabazlea argitaratzen denetik urtebetez egongo da indarrean.
- Iñigo Peña sukaldariak aukeratutako dastaketa-afaria eskainiko da Narru jatetxean.

## BOSGARRENA

Donostia Turismoak iruzurrezko edo beste partaide batzuk iraintzeko ekintzak egiten ari diren pertsonetako partaidetza-eskubidea gordetzen du.

## SEIGARRENA

Donostia Turismoak oinarri hauetan jaso gabeko egoerak ebatzi ahal izango ditu, baita interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak ere.

## ZAZPIGARRENA

Lehiaketa hau Donostia Turismoak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu dute eta bertan ez dute parte-hartzerik eta erantzukizunik INSTAGRAM, INCEK eta FACEBOOKeketa TWITTERrek.

## ZORTZIGARRENA

Oinarri hauek onartzeak esan nahi du parte-hartzaileek beren datu pertsonalak honela tratatzea onartzen dutela:

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
<b>Tratamenduaren arduraduna</b>	Donostiako Udala
<b>Tratamenduaren helburua</b>	Interesdunaren parte-hartzea kudeatzea Donostiako Udalak antolatutako lehiaketa, zozketa eta beste edozein jardueratan, baldin eta jarduera ekonomiko eta sozialak sustatu, garatu eta bultzatzen badituzte, zuzenean edo zeharka, Donostiako lurralde-eremuan turismoa garatzen laguntzeko.
<b>Tratamenduaren legitimazioa</b>	DBEOren 6.1.a) artikulua: kaltetutako pertsonaren baimena.
<b>Lagapenen edo transferentzien hartzaileak</b>	Ez daude
<b>Interesdunen eskubideak</b>	Interesdunen eskubideak Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzea, bai eta beste eskubide batzuk ere, Donostiako Udalaren aurrean balia daitezkeenak (Ijentea kalea 1, 20003 Donostia).

Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio zehatza webgune honetan kontsulta dezakezu: <https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/pribatutasun-oharrak-lehiaketak>

## **BEDERATZIGARRENA**

Parte-hartzaileek bermatzen dute zozketa honen esparruan aurkeztutako argazkiak, bideoak eta/edo bestelako ikus-entzunezko materialak originalak direla eta ez dutela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualaren eta/edo industria-jabetzaren inolako eskubiderik. Era berean, parte-hartzaileen erantzukizuna izango da materialetan ager daitezkeen pertsonen baimena lortzea.

Zozketa honen kanpainako sustapen-ekintzak egin ahal izateko eta Donostiako lurralde-eremuan turismoaren garapena bultzatzeko, parte-hartzaile guztiek, Donostia Turismoari hurrengo lizentzia emango diote aurkeztutako materialei dagokienez: ustiapen-lizentzia ez-esklusiboa, doakoa eta eskualdaezina, legez ezarritako gehieneko iraupen-eperako eta munduko lurralde-eremu osorako. Hori guztia Donostia Turismoari eraldatzeko, erreproduzitzeko eta publikoki komunikatzeko aukera emanez, osorik edo zatikatuta, edozein euskarritan, ukigarria zein ukiezina, autoretza beti ere aipatuz.

Aipatutako guztiak ez die kalterik egingo egile-eskubide moralei eta materialen gaineko Jabetza Intelektualaren ondare-edukiko eskubide guztien titulartasunari; eskubide horiek sortu dituzten parte-hartzaileei dagozkie aurrerantzean ere.

Nolanahi ere, parte-hartzaile bakoitzak Donostia Turismoaren aurrean erantzungo du aurkeztutako materialei dagokienez, hirugarrenek Jabetza Intelektualari buruz egin ditzaketen erreklamazioen aurrean, eta kalte-ordaina eman beharko dio Donostia Turismoari, horri buruzko balizko erreklamazioen ondorioz eragin dakizkiokeen kalte-galera guztiengatik.

## **HAMARGARRENA**

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak osorik onartzea